

Gotzon Barandiaran

LARRABETZUKO LITERATURA ESKOLAKO KIDEA

Indarkeriaren intolerantzia

Geldi zaudela, aldarrika, polizia batek jotzen bazaitu, zer egin zenezake? Zelan deritzogu poliziak egindakoari? Neurriko erantzuna da geldi dagoen pertsona baten oihuari borra kolpearen ordaina ematea? Galarazita egotea aitzakia nahikoa da gomazko pilotak bi metrora jaurtitzeko? ETaren indarkeriari aurre egiteko kolore eta amorru askotako poliziak erabiltzen dira, instituzioak erabiltzen dira, herritarren iritzia erabiltzen da, komunikabide pribatu zein publikoak erabiltzen dira. Eta zer erabiltzen da poliziaren indarkeriari aurre egiteko?

Azken urteotako euskal politikagintzan intoleranteetan intoleranteena izan den alderdi bateko buruzagiak esan berri duenez, ETA-Batasuna munduaren intolerantzia eta indarkeriari aurre egitea eta deslegitimatzea izan behar da espainolizatuago utzi gura lukeen alderdiaren lehentasuna. Urteotako gatazka politikoa konpontzeko –zutabeak teilaturaino porlantzekotan egon garen sasoiotan– horrelakoak esatea beldurgarria iruditzen zait, eta erabiltzeko uzkur naizen berba erabiltzera. Erabat gaitzesgarria. Espainiako bi alderdi nazionalista nagusiek euskal independentismoaren aurka are gogorrago jotzeko, Espainiako epaile nazionalistek justizia gose greban iraunarazteko behar duten abiadura handiko eta ohorezko pasabidea da, beste bat. *Kaskagorri, Gaztesarea, Egunka-*



INIGO AZKONA

ria, 18/98 +..., Udalbiltza, Askatasuna, Batasuna, Osasuna, Maitasuna eta euskal nortasunarekiko jazarpena mantentzen duten Dignidad y Justicia bezalako guardia zibilen elkarte mozorrotuak eskuak igurtzika ariko dira, letaginetatik adurra dariela. Eta nortzuk eta zelan egingo diegu aurre epailei eta poliziei, hamaika lagun euskarzko egunkari bat sortzeagatik urteotako kartzela zigorra betearaztera eramaten dituztenean? Orduan ere Gandhi izango dugu gogoan? Eta haren antzera jokatu dugu edo gogoraraztea nahikoa izango da?

Zelan egingo genioke aurre Espainiako epaile nazionalisten erabaki politikoari Ibarretxe bera espetxeratuko balute? –barka, balizkotasunaren mugetan ari naiz–. Udaletxe aurreetan bost minutuko kontzentrazio isilekin nahikoa litzateke? 2008ko hauteskundeetan ordezkari izan lortu eta Espainiara joango gara euskaldunak bagarena aldarrikatzera, batzuk urteotako usadioari jarraikiz, bestetarik, aspaldiko partez. Espainiar nazionalismoaren indarkeriari aurre egiteko Madrileraino joan behar dugu? Euren jarduera publikoki eta egunerokotasunez egin dute koiuntura eta mutu gaude komenigarritasunaren arabera kartzelarazten dituztenean. Kalaka baino beste zerbait egin beharko nukeela mailukatzen dit inpotentziak, tai gabe, ezinegonak, eten barik. ■

«
Dignidad y Justicia bezalako guardia zibilen elkarte mozorrotuak eskuak igurtzika ariko dira, letaginetatik adurra dariela
»

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Eraiki. Baionan egin diren bi bilkuretan ez dira gutxi izan aurkeztu zaizkigun herrialde ezberdinetako autonomia ereduak. Eta noski, guztietan zegoen errealitate amankomun bat, denak baitira estatuen menpekotasunetatik askatze prozesuak. Gaztetatik izan dugu autonomoak izateko beharra, langile familietan gure lehen salariorik gauzatzen joan dena. Etxe guztietan ez zen berdina izan. Gurean, nagusiek ez zuten ugazabarekikoa ongi bizitzen eta lana libreki egitea zuten helburu. Auzoan aldiz, gehienek maite zuten nagusi batentzat aritzea, salarioaren zenbatekoa jakiteari garrantzia emanez. Txikia bada ere,

Autonomia

hura segurua zuten lege. Gure etxean errazagoa izan genuen autonomia lortzea, hau independentziaren ondorioa izan baikenuen. Auzoko gazte gehienek etxean jarraitu zuten bizitzen luzaz. Bere abantailak ba omen zituzten, nahiz eta etengabe negoziatzen bizi behar izan. Gure etxea eraiki behar izan genuenok, ezer gutxirekin, ia-ia hutsetik hasi behar izan genuen. Erosotasuna galdu, askatasuna irabazi eta etxeoketiko harremanak berdintasunean. Eta denborak arrazoia eman digu. Baionatik irten eta etxerako bidean hori nuen buruan. Independentzia da autonomia dakarrena. Politikan, sobra ere, autonomiaka egin behar da askatasun bidea. Independentzia. ■

hura segurua zuten lege. Gure etxean errazagoa izan genuen autonomia lortzea, hau independentziaren ondorioa izan baikenuen. Auzoko gazte gehienek etxean jarraitu zuten bizitzen luzaz. Bere abantailak ba omen zituzten, nahiz eta etengabe negoziatzen bizi behar izan. Gure etxea eraiki behar izan genuenok, ezer gutxirekin, ia-ia hutsetik hasi behar izan genuen. Erosotasuna galdu, askatasuna irabazi eta etxeoketiko harremanak berdintasunean. Eta denborak arrazoia eman digu. Baionatik irten eta etxerako bidean hori nuen buruan. Independentzia da autonomia dakarrena. Politikan, sobra ere, autonomiaka egin behar da askatasun bidea. Independentzia. ■